

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasun Sailak, San Juan de Dios Ospitaleak eta “La Caixa” gizarte ekintzak gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonen arreta integrala sustatuko dute

*Hitzarmen bat sinatu dute datozen lau urteetarako, gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea eta arreta psikosoziala hobetzeko xedez*

Osteguna, 2018.eko irailak 27

Nafarroako Gobernuaren Osasun Sailak, Iruñeko San Juan de Dios ospitaleak eta “la Caixa” Gizarte Ekintzak lankidetzarako hitzarmen bat sinatu dute, gaur, “la Caixa” Gizarte Ekintzak bultzatutako Gaixotasun Aurreratuak dituzten Pertsonen Arreta Integrala emateko Programa ezarri eta zabalteko jarduerak aurrera eramateko.



Ezkerralde, Domínguez, Simón eta Díez

Fernando Domínguez kontseilariak, Patricia Segura San Juan de Dios ospitaleko zuzendari-gerenteak eta Marc Simón “la Caixa” Fundazioaren zuzendariorde nagusiak gaur sinatu dute dokumentua, Osasun Sailean. Ekitaldian, Caixabank-eko Nafarroako zuzendari Ana Díez Fontanak ere parte hartu du.

Hitzarmenak bizitzaren azkenean dauden pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko Osasun Sailean eta beste erakunde sinatzaileen konpromisoa islatzen du. Prestakuntza eta gaitasun egokia dituen profesional-talde batek gaixoei eta haien familiei laguntzeaz gainera, doluan direnei arreta eta aholkularitza profesionala ematen dizkiete. Proiektuak irakaskuntza, sentsibilizazioa eta ikerkuntza ere barne hartzen ditu.

Modu horretara, San Juan de Dios ospitaleko arreta psikosozialeko taldeak gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonen eta haien familiei arreta medikoa emateaz gainera arreta psikologikoa, soziala eta espirituala ematen dizkiete. Arreta integral hori Lehen Mailako Arretako unitateekin, “Osasunbideko “AEA Unitateko” agenteekin eta San Juan de Dios ospitaleko zainketa aringarrien programako kideekin osatzen da.

Hitzarmena indarrean egongo da 2022ko abenduaren 31ra arte, eta alde bakoitzaren izenean bi ordezkari izango dituen batzorde misto batek haren betetzea ziurtatuko du.

### **Arreta integraleko programa**

2008an, Gaixotasun Aurreratuak dituzten Pertsonen eta Haien Familiei Arreta Integrala emateko "la Caixa" Gizarte Ekintzaren programa sortu zen, xede hauetarako: gaixoei eta haien familiei laguntza emozionala, soziala eta espirituala ematea, doluan direnei arreta ematea, zainketa aringarrien alorreko profesionalei euskarria ematea, gizarte heriotzaren inguruan sentibilizatzea eta boluntarioritza sustatzea.

Programa sortu zenetik, Nafarroan 10.000 pertsona baino gehiago artatu dira, horien artean 3.768 gaixo eta 6.369 familia. Gehienetan, gaixo onkologikoak dira, eta kasuen % 81,4an 71 urte ingurukoak.



Luis Gabilondo, Juan Pedro Arbizu, Patricia Segura, Fernando Domínguez, Ana Díez, Marc Simón, Izaskun Azkona eta Montserrat Buisan.